

**EBAZPENA, 2022ko martxoaren 22koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, Kontseilu Errektoreak 2022ko martxoren 21ean onartutako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2022rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa argitaratzea onartzen duena.**

Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen dirulaguntzei buruzko legezko erregimenak dirulaguntzak ematea proposatzen duten administrazio publikoen edo enteen premia zehazten du, betiere erakunde horiek dirulaguntzen plan estrategiko bat badute.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 1/15 Zirkularraren bidez zehaztu zituen funtsezko jarraibide batzuk plan hori egiteari dagokionez.

Horri begira, eta ikuspegi osoa eskaintzeko, eta horrekin batera efikazia- eta efizientzia-mailak areagotzeko, eta publizitatea eta gardentasuna bultzatzeko, 2022rako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Dirulaguntzen Plan Estrategiko honek 2022ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legean bildutako aurreikuspenak biltzen ditu (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 261. zk., 2021eko abenduaren 30ekoa).

Ildo horretan, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortzen eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 10. artikuluan aurreikusitakoa kontuan izanda, 2022ko urtarrilaren 25ean onartu zuen Kontseilu Errektoreak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren egun bereko ebazpen bidez iragarri zen.

Gaur egun, eta plan hori gehiago zehazteko premia dagoela ikusi ondoren, Kontseilu Errektoreak 2022ko martxoaren 21ean onartu du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa.

Zirkunstantzia horiek kontuan izanda, 2022rako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa argitaratzen da.

Azaldutako horiek horrela, honako hau

### **EBATZI DUT**

**Bakarra.-** 2022ko martxoaren 21ean Kontseilu Errektoreak onartutako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2022rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa dagozkion bitarteko ofizialen bidez iragarri dadila onartzea eta, edozein kasutan ere, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webgunean txertatuta [www.elankidetza.euskadi.eus](http://www.elankidetza.euskadi.eus).

Sin.: Paul Ortega Etcheverry  
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.

## 2022ko DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

---

### 1. Sarrera

Plan estrategiko hau onartzen da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8. artikuluan xedatutakoa betez. Manu horrek exijitzen duenez, dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten administrazio publikoetako organoek dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte alde aurretik planaren aplikazioarekin lortu nahi diren helburu eta ondorioak, helburu horiek lortzeko beharrezko epeak aurreikusi daitezkeen kostuak eta dagozkien finantzaketa-iturriak, aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende utzita edozein kasutan ere. Era berean, artikuluko horrek xedatzen duenez, dirulaguntzen kudeaketa betiere publizitateari, gardentasunari, konkurrentziari, objektibotasunari, berdintasunari eta ez-diskriminazioari lotutako printzipioei, administrazio emailek finkatutako helburuak betetzearekin lotutako eraginkortasunari, eta baliabide publikoen esleipenari eta erabilerari lotutako efizientziari jarraikiz egin behar da.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak bere 13. artikuluan esleitzen dio Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari garapenerako lankidetzaren arloa. Ildo horretan, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuaren 2. artikuluko 3. zenbakiak Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitzen dio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzaren Sailburuordetzaren bidez, idazkaritza hori sortzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legean ezarritakoari jarraikiz, eta erakunde horri dagokio garapenerako lankidetzaren arloa.

Horrenbestez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren politikaren plangintza-tresna baten bidez konfiguratu da plan hau eta honako helburu hauek lortu nahi ditu dirulaguntza horiek ematearen bidez: pobrezia aurka borrokatzea eta herrialde pobretuetan giza garapen jasangarria sustatzea.<sup>1</sup>

Lortu nahi diren helburuak erdiesteko bidean aurrera egiteko dauden moduak aztertu dira plan hau egiteko, eta planaren indarraldian –hots, 2022. urtean– horretarako eskuragarri dauden eta aurreikusi daitezkeen baliabideak kontrastatu dira jada. Horrela, eraginkortasun- eta efizientzia-mailen gehikuntza bermatzen da, baita gardentasunaren indartzea ere jarduketara-esparru horretan.

Plana autonomia-erkidegoko administrazioaren gainerako plangintzan txeratzeari dagokionez, Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legean eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2022. urteko planean kokatzen da plan estrategiko hau, eta urteko plan horrek finkatzen du denbora-esparru horretako agentziaren jarduketaren programazioa, baita esparru horretara bideratutako aurrekontuaren ildo aplikagarri orokorrak ere.<sup>2</sup>

---

<sup>1</sup> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortzen eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 1. artikulua

<sup>2</sup> Garapen Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legearen 18. artikulua.

Ildo horretan, lau arlo hartzen ditu ardatz Dirulaguntzen Plan Estrategikoak: gizarte-eraldaketa, krisi humanitarioetarako erantzuna, agenteak sendotzea, eta sentsibilizazioa, komunikazioa, ikerketa eta ikaskuntza-sorkuntza.

Kontuan hartzekoa da, planak izaera programatikoa duela eta ez normatiboa, eta, hori horrela, bere edukiak ez du ez eskubiderik, ez betebeharririk sortzen, eta planaren dirulaguntza-lineak praktikan jartzearen mende dago planaren beraren eraginkortasuna, ekitaldi honetako aurrekontu-aukerak kontuan izanda, beste zenbait alderdiren artean.

## 2. Planaren esparru instituzional eta denborazkoa

Dirulaguntzei buruzko Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 11. artikulua sektore-planen esparrua arautzen du.

Esparru instituzionalari dagokionez, arau orokor gisa ministerio bakoitzerako plan bat onartuko dela zehazten du (autonomia-erkidegoan sail bakoitzerako dela ulertu beharko da), eta autonomia-erkidego horretako organoen zein erakundeen eta lotutako ente publikoen dirulaguntzak hartuko ditu barnean. Dena den, salbuespenak onartzen dira arau orokor horretarako, manu horren 2. zenbakiak plan estrategiko bereziak onartzea ahalbidetzen baitu, ministerio-esparrutik azpiko esparrukoak, planen garrantziak haien garapen partikularizatua justifikatzen duenean, baita plan estrategiko bateratuak ere, planen kudeaketan ministerio-esparru desberdineko zenbait ministeriok edo erakundek parte hartzen dutenean.

Gauzak horrela, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren izaera juridikoaren ondoriozko espezifikotasunak plan estrategiko propio bat onartzea aholkatzen du. Horrela, ekainaren 19ko 5/2008 Legeak emandako eskumenen arabera, 2022. urterako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren dirulaguntzak barnean hartzen ditu plan honek.

Norgehiagokako erregimenean deituko diren laguntzak eta dirulaguntzak honako hauek dira:

- Gizarte-eraldaketako arloa, non honako hauek subentzionatzen diren:
  - i. Hegoko herrialdeetara bideratutako garapenerako lankidetzako proiektuak egiteko euskal erakundeak
  - ii. Euskadira bideratutako hezkuntza-proiektuak egiteko euskal erakundeak
  - iii. Ipar-Hego eta Lankidetzako Hezkuntza logikak gainditzen dituzten akzio-programak egiteko garapenerako lankidetzako agenteak
- Krisi humanitarioei erantzuteko arloa, ekintza humanitarioko estrategiak egiteko euskal erakundeak subentzionatzen dituenak.
- Agenteak sendotzeko arloa, honako hauek subentzionatzen dituenak:
  - iv. aldaketa-prozesuak sustatzeko euskal lankidetzako erakundeak, genero-ekitatearen aldeko erakundeak
  - v. EAEn bizi diren gazteak garapenerako lankidetzako arloan espezializatu eta prestatu daitezkeenak.

- Sentsibilizazioko, komunikazioko, ikerketako eta ikaskuntza-sorkuntzako arloa, pertsona fisikoak garapenerako lankidetzaren esparruan izan duten ibilbideagatik saritzen dituena.

Norgehiagokakoa ez den erregimenean deituko diren dirulaguntzak honako hauek dira:

- Krisi humanitarioei erantzuteko arloa, ekintza humanitarioko proiektuak egiteko lankidetz-agentzeari subentzionatzen dituena.

Adierazitako konkurrentziako tresnez gain, ekimenak sustatu ahalko ditu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak adierazitako lau arlotan, 1/2007 Legaren aurreikuspenen arabera.

Era berean, 2022. urterako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren aurrekontuetan nominatiboki aurreikusitako honako laguntza eta dirulaguntza hauek ematea aurreikusten da:

- Dirulaguntza HEGOA-EHU Garapenera eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Azterlanen Institutuari garapenerako lankidetzaren arloan prestakuntza espezializatua emateko: 250.000 euro (4-452-00/46)
- Nazio Batuen Larrialdi Kasutarako Funtz Zentralarentzako dirulaguntza larrialdikasuetan ekiteko: 200.000 euro (4-44001-00/20)
- KCD Kultura, Communication y Desarrollo elkartearantzako dirulaguntza Zinema Ikusezinenaren 14. Jaialdirako: 181.000 euro (4-45001-21/02)
- Euskal Fondoarentzako dirulaguntza SKU Saharako Koordinazio Unitateari laguntzeko: 94.000 euro (4-421-00/40)
- CEAR-Euskadi elkartearantzako dirulaguntza giza eskubideen defendatzaileentzako euskal babes-programarako: 70.000 euro (4-452-00/21)
- Deustuko Elizaren Unibertsitateko dirulaguntza Latinoamerikako herri indigenentzako giza eskubideetako prestakuntza-programarako: 150.000 euro (4-45001-00/47)
- Euskadiko GGKEen Koordinakundearentzako dirulaguntza koordinakundea agente gisa sendotzeko sektorean parte hartzen duten erakundeentzako garapenean: 200.000 euro (4-452-00/23)
- SEADen Lagunen Elkartearantzako dirulaguntza Fronte Polisarioak Euskadin duen delegazioari laguntzeko: 85.000 euro (4-452-00/19)
- UNRWAKo Komite Espainiarra elkartearantzako laguntza Ekialde Hurbileko errefuxiatu palestinarrei laguntzeko: 250.000 euro (4-44001-00/48)
- Conseil des Organisations Non Gouvernementales d'Appui au Développement elkarterentzako laguntza Senegalgo gizarte-erakundeentzako gaitasun tekniko eta operatiboak sendotzeko. 60.000 euro (4-45001-00/44)
- Conseil National des Organisations Non Gouvernementales de Développement du Congo elkartearantzako laguntza Kongoko Errepublika Demokratikoko gizarte-erakundeentzako gaitasun tekniko eta operatiboak sendotzeko 60.000 euro (4-452-00/24)
- Manuel Iradier eta Kultura elkarte afrikantentzako dirulaguntza Zinema Afrikararen Euskal Zinemaldirako: 60.000 euro (4-45001-00/22)
- AIDA Ayuda Intercambio y Desarrollo elkartearantzako dirulaguntza Ginea Bissauko osasun-sistema publikoa sendotzeko: 500.000 € (4-45001-00/49)

### **3. Ardatz estrategikoak eta linea subentzionagarriak**

#### **3.1. Ardatz estrategikoak**

Hasieran adierazi denez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortzeari buruzko ekainaren 19ko 5/2008 Legeak honako helburu hauek finkatzen ditu erakunde horren helburu gisa: pobrezia aurka borrokatzea eta giza garapen jasagarria sustatzea herrialde pobretuetan.

Bestalde, Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legeak 4. artikulutik 7. artikulura definitzen ditu esparru horretako helburuak, baita lehentasun sektorial, geografiko eta zeharkakoak ere.

Gehigarri gisa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2022ko urteko plana lehentasun geografiko, sektorial eta zeharkakoen zehaztapena ere biltzen du.

Horrenbestez, plan honen ardatz estrategikoak arau horietan eta plangintza-dokumentuetan identifikatutako helburu orokorren eta esku-hartze ardatzen barruan kokatzen dira.

#### **3.2. Dirulaguntza-lineak norgehiagokako erregimenean**

Plan honetan barne hartutako ildo estrategikoak dokumentu honen eranskinetan ezarritakoak dira.

- I. eranskina - Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lineak: helburuak, ekintzak eta adierazleak
- II. eranskina – Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lineak: aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko.
- III. eranskina - Ardatz estrategikok eta dirulaguntza-lineak: zein sektorerara edo sektoretara zuzenduta dauden, eta emateko prozedurak
- IV. eranskina – Funts banagarrien urteko konpromisoak

#### **3.3. Zuzeneko laguntza eta dirulaguntzen linea**

Eranskinetan jasota dago zuzeneko laguntza eta dirulaguntzen linea.

Aurretik adierazitako lau arloetan uztartzeaz gain, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2022ko urteko planean ezarritako helburu sektorial eta estrategikoak, besteak beste, kontuan izanda ematen dira zuzeneko laguntza eta dirulaguntza hauek, baita indarreko gainerako dokumentu estrategikoak kontuan izanda ere (ekintza humanitarioko estrategia, gizarte-eraldaketarako hezkuntza, eta abar).

**I. ERANSKINA – ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZA-LINEAK: HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK**

<b>HELBURU ESTRATEGIKOA: Krisi humanitarioetarako erantzuna</b>		
<b>1. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Ekintza humanitarioeko esku-hartzeetarako laguntzak, ekintza humanitarioeko estrategiak modalitatea		
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia		
<b>PARTIDA: 4-45001-22/01</b>	<b>2021</b>	<b>2022</b>
Ekintza: Ekintza humanitarioeko esku-hartzeetarako laguntzen deialdia kudeatzea, Ekintza humanitarioeko estrategiak modalitatea	4.371.910,78 €	3.000.000,00 €
Adierazleak:		
-Ekintza humanitarioeko estrategietarako eskatutako laguntzen kopurua	11	11
-Ekintza humanitarioeko estrategietarako emandako laguntzen kopurua	6	4

<b>HELBURU ESTRATEGIKOA: Krisi humanitarioetarako erantzuna</b>		
<b>2. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Ekintza humanitarioeko esku-hartzeetarako laguntzak, ekintza humanitarioeko proiektuen modalitatea		
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia		
<b>PARTIDA: 4-45001-22/01</b>	<b>2021</b>	<b>2022</b>
Ekintza: Ekintza humanitarioeko esku-hartzeetarako laguntzen deialdia kudeatzea, Ekintza humanitarioeko proiektuen modalitatea.	6.064.044,61 €	4.000.000,00 €
Adierazleak:		
-Ekintza humanitarioeko proiektuetarako eskatutako laguntzen kopurua	40	35
-Ekintza humanitarioeko proiektuetarako emandako laguntzen kopurua	33	20

<b>HELBURU ESTRATEGIKOA: Gizarte-eraldaketa</b>		
<b>3. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Garapenerako lankidetzako proiektuetarako laguntzak		
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia		
<b>PARTIDA: 4-45001-22/01</b>	<b>2021</b>	<b>2022</b>
EKINTZA: Garapenerako lankidetzako proiektuetarako laguntzen deialdia bere hiru kapitulutan kudeatzea.	32.000.000,00 €	32.000.000,00 €
Adierazleak:		
-Garapenerako lankidetzako proiektuetarako eskatutako laguntzen kopurua	130	135
-Garapenerako lankidetzako proiektuetarako emandako laguntzen kopurua	53	52
-Garapen produktiboko proiektuetarako eskatutako laguntzen kopurua	8	8
-Garapen produktiboko proiektuetarako emandako laguntzen kopurua	4	5
-Garapenerako hezkuntzarako eskatutako laguntzen kopurua	48	53
-Garapenerako hezkuntzarako emandako laguntzen kopurua	20	20

<b>HELBURU ESTRATEGIKOA: Agenteak sendotzea</b>		
<b>4. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Lankidetzarako erakundeetara bideratutako laguntzak genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko		
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia		
<b>PARTIDA: 4-45001-22/01</b>	<b>2021</b>	<b>2022</b>
EKINTZA: Erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko lankidetzako erakundeentzako laguntzen deialdia kudeatzea	218.480,18 €	433.000,00 €
Adierazleak:		
-Genero-ekitatearen aldeko antolamendu-aldaketarako eskatutako laguntzen kopurua.	16	18
-Genero-ekitatearen aldeko antolamendu-aldaketarako emandako laguntzen kopurua.	7	12



<b>HELBURU ESTRATEGIKOA: Agenteak sendotzea</b>		
<b>5. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Garapenerako lankidetzaren alorreko profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak		
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia		
<b>PARTIDA: 4-45001-22/01</b>	<b>2021</b>	<b>2022</b>
EKINTZA: Garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak emateko deialdia kudeatzea	0,00 €	40000,00 €
Adierazleak:		
-Eskatutako espezializazio- eta prestakuntza-beken kopurua	0	35
-Emandako espezializazio- eta prestakuntza-beken kopurua	0	2

<b>HELBURU ESTRATEGIKOA: Sentsibilizazioa, komunikazioa, ikerketa eta ezagutza-sorkuntza</b>		
<b>6. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Garapenerako lankidetzaren Ignacio Ellacuría saria		
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia		
<b>PARTIDA: 4-45001-22/01</b>	<b>2021</b>	<b>2022</b>
EKINTZA: Garapenerako Lankidetzaren Ignacio Ellacuría Sariaren deialdia kudeatzea	15.500,00 €	15.500,00 €
Adierazleak:		
-Saria emateko proposatutako erakundeen edo pertsona fisikoen kopurua	5	5
-Saritutako erakundeen edo pertsona fisikoen kopurua	2	1

<b>HELBURU ESTRATEGIKOA: Gizarte-eraldaketa</b>		
<b>7. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Garapenerako lankidetzeta-proiektuetarako laguntzak		
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia		
<b>PARTIDA: 4-45001-22/01</b>	<b>2021</b>	<b>2022</b>
EKINTZA: Garapenerako lankidetzeta-programetarako laguntzen deialdia kudeatzea	0,00 €	150.000,00€
Adierazleak:		
-Garapenerako lankidetzeta-programetarako eskatutako laguntzen kopurua	0	7
-Garapenerako lankidetzeta-programetarako emandako laguntzen kopurua	0	5

<b>HELBURU ESTRATEGIKOAK: Gizarte-eraldaketa, krisi humanitarioetarako erantzuna, agenteak sendotzea eta sentsibilizazioa, ikerketa eta ezagutza-sorkuntza</b>		
<b>8. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Zuzeneko laguntzak eta dirulaguntzak		
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia		
<b>PARTIDA: 4-45001-22/01</b>	<b>2021</b>	<b>2022</b>
EKINTZA: Zuzeneko laguntza eta dirulaguntzak kudeatzea	4.359.386,00 €	3.061.500,00€
Adierazleak:		
-Jasotako zuzeneko lankidetzeta-proposamenen kopurua	34	22
-Emandako zuzeneko laguntza eta dirulaguntzen kopurua	23	13

**II. ERANSKINA – ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA LINEA SUBENTZIONAGARRIAK: AURREKONTU-KONPROMISOAK ETA FINANTZAKETA PUBLIKOAREN GLOBALAREKIKO FINANTZAKETA**

<b>HELBURU ESTRATEGIKOA: Krisi humanitarioetarako erantzuna</b>				
<b>1. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak, ekintza humanitarioko estrategiak modalitatea				
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	<b>2021</b>		<b>2022</b>	
<b>PARTIDA: 4-45001-22/01</b>	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Eragiketa korronteetarako transferentzia eta dirulaguntzak; Laguntzak 2022	4.371.910,78 €	9,31	3.000.000,00 €	7,03

<b>HELBURU ESTRATEGIKOA: Krisi humanitarioetarako erantzuna</b>				
<b>2. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak, ekintza humanitarioko proiektuen modalitatea				
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	<b>2021</b>		<b>2022</b>	
<b>PARTIDA: 4-45001-22/01</b>	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Eragiketa korronteetarako transferentzia eta dirulaguntzak; Laguntzak 2022	6.064.044,61 €	12,78	4.000.000,00 €	9,37

<b>HELBURU ESTRATEGIKOA: Gizarte-eraldaketa</b>				
<b>3. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Garapenerako lankidetzako proiektuetarako laguntzak				
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	<b>2021</b>		<b>2022</b>	
<b>PARTIDA: 4-45001-22/01</b>	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Eragiketa korronteetarako transferentzia eta dirulaguntzak; Laguntzak 2022	32.000.000,00 €	68,13	32.000.000,00 €	74,94

HELBURU ESTRATEGIKOA: Agenteak sendotzea				
<b>4. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Lankidetzarako erakundeei bideratutako laguntzak genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko				
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	2021		2022	
<b>PARTIDA:</b> 4-45001-22/01	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Eragiketa korranteetarako transferentzia eta dirulaguntzak; Laguntzak 2022	218.480,18 €	0,47	433.000,00	1,01

HELBURU ESTRATEGIKOA: Agenteak sendotzea				
<b>5. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Garapenerako lankidetzaren alorreko profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak				
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	2021		2022	
<b>PARTIDA:</b> 4-45001-22/01	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Eragiketa korranteetarako transferentzia eta dirulaguntzak; Laguntzak 2022	0 €	0	40.000,00 €	0,09

HELBURU ESTRATEGIKOA: Sentsibilizazioa, komunikazioa, ikerketa eta ezagutza-sorkuntza				
<b>6. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Garapenerako lankidetzaren Ignacio Ellacuría saria				
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	2021		2022	
<b>PARTIDA:</b> 4-45001-22/01	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Eragiketa korranteetarako transferentzia eta dirulaguntzak; Laguntzak 2022	15.500,00 €	0,03	15.500,00 €	0,04

HELBURU ESTRATEGIKOA: Gizarte-eraldaketa				
<b>7. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Garapenerako lankidetzaren proiektuetarako laguntzak				
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	2021		2022	
<b>PARTIDA:</b> 4-45001-22/01	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Eragiketa korranteetarako transferentzia eta dirulaguntzak; Laguntzak 2022	0 €	0	150.000,00 €	0,35

<b>HELBURU ESTRATEGIKOAK: Gizarte-eraldaketa, krisi humanitarioetarako erantzuna, agenteak sendotzea eta sentsibilizazioa, ikerketa eta ezagutza-sorkuntza</b>				
<b>8. DIRULAGUNTZA-LINEA: Zuzeneko laguntzak eta dirulaguntzak</b>				
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	<b>2021</b>		<b>2022</b>	
<b>PARTIDA: 4-45001-22/01</b>	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Eragiketa korranteetarako transferentzia eta dirulaguntzak; Laguntzak 2022	4.359.386,00 €	9,28	3.061.500,00 €	7,17

### III. ERANSKINA – ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA LINEA SUBENTZIONAGARRIAK: ZEIN SEKTORERI ZUZENTZEN ZAIZKION EDO ZAIZKIEN ETA EMATEKO PROZEDURAK

<b>HELBURU ESTRATEGIKOA: Krisi humanitarioetarako erantzuna</b>	
<b>1. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Ekintza humanitarioeko esku-hartzeetarako laguntzak, ekintza humanitarioeko estrategiak modalitatea	
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	
<b>PARTIDA: 4-45001-22/01</b>	
<b>Zein sektoreri zuzentzen zaizkion</b>	Irabazi-asmorik gabeko erakundeak.
<b>Emateko prozedurak</b>	Norgehiagokako erregimeneko deialdi bat da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen bidez gauzatuko da deialdia. Honako alderdi hauek zehaztuko dira, besteak beste, ebazpen horretan: a) xedea; b) zenbatekoa; c) aurrekontu-partida; d) kudeaketa-organoa; e) ordainketa-epeak; g) justifikatzeko modua.

<b>HELBURU ESTRATEGIKOA: Krisi humanitarioetarako erantzuna</b>	
<b>2. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Ekintza humanitarioeko esku-hartzeetarako laguntzak, ekintza humanitarioeko proiektuen modalitatea	
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	
<b>PARTIDA: 4-45001-22/01</b>	
<b>Zein sektoreri zuzentzen zaizkion</b>	Irabazi-asmorik gabeko erakundeak
<b>Emateko prozedurak</b>	Ondoz ondoko konkurrentziako erregimeneko deialdi bat da. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen bidez gauzatuko da deialdia. Honako alderdi hauek zehaztuko dira, besteak beste, ebazpen horretan: a) xedea; b) zenbatekoa; c) aurrekontu-partida; d) kudeaketa-organoa; e) ordainketa-epeak; g) justifikatzeko modua.

<b>HELBURU ESTRATEGIKOA: Gizarte-eraldaketa</b>	
<b>3. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Garapenerako lankidetzako proiektuetarako laguntzak	
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	
<b>PARTIDA: 4-45001-22/01</b>	
<b>Zein sektoreri zuzentzen zaizkion</b>	Irabazi-asmorik gabeko erakundeak
<b>Emateko prozedurak</b>	Norgehiagokako erregimeneko deialdi bat da  Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren agindu baten bidez gauzatuko da deialdia. Honako alderdi hauek zehaztuko dira, besteak beste, agindu horretan: a) xedea; b) zenbatekoa; c) aurrekontu-partida; d) kudeaketa-organoa; e) ordainketa-epeak; g) justifikatzeko modua.

<b>HELBURU ESTRATEGIKOA: Agenteak sendotzea</b>	
<b>4. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Lankidetzarako erakundeei bideratutako laguntzak genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko	
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	
<b>PARTIDA: 4-45001-22/01</b>	
<b>Zein sektoreri zuzentzen zaizkion</b>	Irabazi-asmorik gabeko erakundeak
<b>Emateko prozedurak</b>	Norgehiagokako erregimeneko deialdi bat da.  Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen bidez gauzatuko da deialdia. Honako alderdi hauek zehaztuko dira, besteak beste, ebazpen horretan: a) xedea; b) zenbatekoa; c) aurrekontu-partida; d) kudeaketa-organoa; e) ordainketa-epeak; g) justifikatzeko modua.

<b>HELBURU ESTRATEGIKOA: Agenteak sendotzea</b>	
<b>5. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Garapenerako lankidetzaren alorreko profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak	
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	
<b>PARTIDA: 4-45001-22/01</b>	

<b>Zein sektoreri zuzentzen zaizkion</b>	Pertsona fisikoak
<b>Emateko prozedurak</b>	Norgehiagokako erregimeneko deialdi bat da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen bidez gauzatuko da deialdia. Honako alderdi hauek zehaztuko dira, besteak beste, ebazpen horretan: a) xedea; b) zenbatekoa; c) aurrekontu-partida; d) kudeaketa-organoa; e) ordainketa-epeak; g) justifikatzeko modua.

<b>HELBURU ESTRATEGIKOA: Sentsibilizazioa, komunikazioa, ikerketa eta ezagutza-sorkuntza</b>	
<b>6. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Garapenerako lankidetzaren Ignacio Ellacuría saria	
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	
<b>PARTIDA: 4-45001-22/01</b>	
<b>Zein sektoreri zuzentzen zaizkion</b>	Irabazi-asmorik gabeko erakundeak edo pertsona fisikoak
<b>Emateko prozedurak</b>	Norgehiagokako erregimeneko deialdi bat da. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen bidez gauzatuko da deialdia. Honako alderdi hauek zehaztuko dira, besteak beste, ebazpen horretan: a) xedea; b) zenbatekoa; c) aurrekontu-partida; d) kudeaketa-organoa; e) ordainketa-epeak; g) justifikatzeko modua.

<b>HELBURU ESTRATEGIKOA: Gizarte-eraldaketa</b>	
<b>7. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Garapenerako lankidetzaren proiektuetarako laguntzak	
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	
<b>PARTIDA: 4-45001-22/01</b>	
<b>Zein sektoreri zuzentzen zaizkion</b>	Irabazi-asmorik gabeko erakundeak
<b>Emateko prozedurak</b>	Norgehiagokako erregimeneko deialdi bat da. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen bidez gauzatuko da deialdia. Honako alderdi hauek zehaztuko dira, besteak beste, ebazpen horretan: a) xedea; b) zenbatekoa; c) aurrekontu-partida; d) kudeaketa-organoa; e) ordainketa-epeak; g) justifikatzeko modua.



<b>HELBURU ESTRATEGIKOAK:</b> Gizarte-eraldaketa, krisi humanitarioetarako erantzuna, agenteak sendotzea eta sentsibilizazioa, ikerketa eta ezagutza-sorkuntza	
<b>8. DIRULAGUNTZA-LINEA:</b> Zuzeneko laguntzak eta dirulaguntzak	
<b>ORGANOA:</b> Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	
<b>PARTIDA:</b> 4-45001-22/01	
<b>Zein sektoreri zuzentzen zaizkion</b>	Irabazi-asmorik gabeko erakundeak
<b>Emateko prozedurak</b>	Gobernu Kontseiluak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia baimentzen du zuzeneko laguntza eta dirulaguntzak eman ditzan.

**IV. ERANSKINA – FUNTS BANAGARRIEN URTEKO KONPROMISOAK**

PROPUESTA FONDOS DISTRIBUIBLES - 2022 / 2022an BANATU DAITEZKEEN FUNTSEN PROPOSAMENA						
Presupuesto 2022 / 2022ko aurrekontua				<b>50.505.959,00</b>		
Compromisos de años anteriores / Aurreko urteetan agindutako gastua				29.321.599,99		
Personal+funcionamiento / Pertsonala+funzionamendua				2.991.753,15		
Inversiones / Inbertsioak				75.000,00		
URA Euskal Agentziaren aurreikusitako ekarpena / Aporte previsto URA Agencia Vasca *				241.668,00		
Ayudas nominativas				2.160.000,00		
Primeros pagos convocatorias 2022 / 2022ko deialdien lehenengo ordainketak				15.715.937,86		
	<b>TOTAL / GUZTIRA</b>	<b>% DEIALDIA</b>	<b>% FD- FF</b>	<b>2022</b>	<b>2023</b>	<b>2024</b>
<b>Acción humanitaria / Ekintza humanitaria</b>	<b>7.000.000,00</b>	<b>100%</b>	<b>16,39%</b>	<b>5.500.000,00</b>	<b>1.500.000,00</b>	<b>0,00</b>
EHE Estrategias de acción humanitaria / Ekintza humanitarioko estrategiak (50% - 50%)	3.000.000,00	42,86%	7,03%	1.500.000,00	1.500.000,00	0,00
PRE-EH Proyectos de acción humanitaria / Ekintza humanitarioko proiektuak (100%)	4.000.000,00	57,14%	9,37%	4.000.000,00	0,00	0,00
<b>Proyectos / Proiektuak</b>	<b>32.000.000,00</b>	<b>100%</b>	<b>74,94%</b>	<b>8.000.000,00</b>	<b>12.800.000,00</b>	<b>11.200.000,00</b>
K1 Cooperación al desarrollo / K1 Garapen lankidetzak (25% - 40% - 35%)	26.000.000,00	81,25%		6.500.000,00	10.400.000,00	9.100.000,00
K2 Desarrollo productivo, formación y asistencia tecnológica / K2 Produkzio garapena, prestakuntza eta laguntza teknologikoa (25% - 40% - 35%)	1.200.000,00	3,75%	63,70%	300.000,00	480.000,00	420.000,00
K3 Educación para el Desarrollo / K3 Garapenerako hezkuntza (25% - 40% - 35%)	4.800.000,00	15,00%	11,24%	1.200.000,00	1.920.000,00	1.680.000,00
Becas de Especialización / Especializazio Bekak	40.000,00	100%	0,09%	26.000,00	14.000,00	0,00
Cambio organizacional pro equidad/ Genero berdintasunaren aldeko prozesuak	433.000,00	100%	1,01%	269.000,00	164.000,00	0,00
Elaboración de diagnóstico y plan pro- equidad (60% - 40%)	210.000,00	48,50%	0,49%	126.000,00	84.000,00	0,00
Elaboración de plan pro- equidad (100%)	16.000,00	3,70%	0,04%	16.000,00	0,00	0,00
Implementación y evaluación del plan pro-equidad (60% - 40%)	200.000,00	46,19%	0,47%	120.000,00	80.000,00	0,00
Evaluación de la implementación del plan pro-equidad (100%)	7.000,00	1,62%	0,02%	7.000,00	0,00	0,00
Programas / Programak	150.000,00	100%	0,35%	150.000,00	0,00	0,00
Identificación (100%)	150.000,00	100,00%	0,35%	150.000,00	0,00	0,00
Zuzeneko emakida-prozedurak/ Procedimientos de Concesión Directa	3.061.500,00	100%	7,17%	1.755.437,86	966.062,14	340.000,00
Subvenciones directas	3.061.500,00	100,00%	7,17%	1.755.437,86	966.062,14	340.000,00
Premio Ignacio Ellacuría / Ignacio Ellacuria Saria (100%)	15.500,00	100%	0,04%	15.500,00	0,00	0,00
	<b>42.700.000,00</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>15.715.937,86</b>	<b>15.444.062,14</b>	<b>11.540.000,00</b>
(*) AKUAL hitzarmenerako 241.668 € / Convenio AKUAL de 241.668 €						
<b>Fondos distribuibles por entidad solicitante (7%)</b>	<b>2.989.000,00 €</b>	<b>Instrumentos no convocados en 2022 / 2022an atarako ez diren deialdiak:</b> KOP- Ayudas a cooperantes profesionales/ Lankide profesionalak laguntzak NBE- Becas ONU				
<b>Erakunde eskatzaile bakoitzak jaso ditzazkeen funtsak (7%)</b>						